

# noaua

**Emisio-partikulak etengabe neurtzeko eskatu dio Udalak Ucini**

**Usurbilgo erreten taldeak Nafarroan piztu zen sutearen itzaltze-lanetan hartu zuen parte**

**Ontzi arinak eta papera biltzeko poltsak Atez Ateko bulegoan eskatu behar dira**



**“Guk ere txertoa jaso nahi dugu”**

**Anbulantzietak langileek greba egingo dute martxoaren 5ean**

*Freskagarri Naturala!*

Sagardo berriak dasta ditzakezue segurtasunez gure sagardotegian!

Betikio Sagardoa

**SAIZAR**

Sagardotegia [www.sidrassalzar.com](http://www.sidrassalzar.com)

**URDAIRA**

Sagardotegia

**OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDETAN irekita**

osasun neurri guztiekin **ERRESERBA EZAZU!**

**Aginaga 943 37 26 91**

**SAGARDOTEGIA**

aginaga

URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA

ASTELEHENETAN ITXITA

osasun neurri guztiegin

**943 36 67 10**

Sagardotegia

[info@aginagasagardotegia.com](mailto:info@aginagasagardotegia.com) [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

*%100 bertako sagarra*

**OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDETAN IREKITA (ERRESERBAREKIN)**

osasun neurri guztiekin

*Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!*

**AIALDE BERRI**

Santutenea,  
Telf: 943 36 50 31

**SAGARDOTEGIA**

## Albisteak iruditan

## Haizeak gogor jo zuen aurreko astean



Euskalmetek Abisu Horia iragarri zuen aurreko astean eta iragarpenean ez zuen kale egin. Otsailaren 15ean, haizea zakar ibili zen goizean goizetik eta hainbat kalte eragin zituen. Artzabalgo parkean, esate baterako, haizeak balkoi edo atari bateko babesa bota zuen. Zorionez, ez zuen kalte pertsonalik eragin.

## Laburrean

## Usurbilek eremu laranja segitzen du

Otsailaren 23an intzidentzia-tasa 332,91an zen. Datu horrekin, Usurbilek eremu laranja segitzen du. Ostiralean eta larunbatean ez zen positiborik izan. Igandean ordea, Osasun Sailak hiru kasu atzeman zituen eta astelehenean bat.

## Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilteta berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

## Aste Santuan, Antzerki ikastaroak Santuenean

Martxoaren 29tik apirilaren 11era, antzerkiaren lehen urratsetan murgiltzeko aukera izango dute 5 urtetik gorako herritar guztiak. Informazio gehiagorako: Ixabel Agirresarobe: 675 712 383. Andrea Arruti: 650 614 380.

# noaia

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaia.eus](mailto:elkartea@noaia.eus) /// [www.noaia.eus](http://www.noaia.eus)  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
[publizitatea@noaia.eus](mailto:publizitatea@noaia.eus)

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaia.eus](mailto:erredakzioa@noaia.eus)



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Usurbilgo Udala  
Euskal Herrira!



Alazne Arruti Bengoetxea

Hatz erakuslea kokatu kristalezko lauza honetan. Biratu pixkanaka eskuinerantz, laser gorriaz, zeure zeureak diren markak atzeman nahi ditugu. Primeran ari zara, itzuli erdirantz eta jarraitu beste alderantz leunki. Bai, hatz erakuslearen zatitxo hauxe, aski da zeure nortasuna identifikatzeko. Zeure berezitasuna azpimarratzeko. Munduko hiritarrak elkarrengandik bereizteko adina informazio daukagu zati honexekin. Azal zati ñimiño hau erabat apartekoa da guztiongan. Ez omen daude pareko bi. Eta agian hauxe bakarrik gara sistemarentzat.

Beraz, zertara dator garena elkarren artean etengabe konparatzeko behar hori? Ez al gara aski ezberdin, berezi, aparteko eta bakarrak. Agian neroni naiz, konparazioen zama aspalditik gainean nabaritu duen bakarrenetarikoa. "Ez zara berekoa baina, zure anaia eskuzabalagoa da. Ez zara hotza edo lehorra, baina kasu egin zenezake argiago, muxuak garestiak dituzu. Esango nuke familiako kide honen aldera irten zarela, txikitatik izan zara arduratsua ikasketetan. Argalduegin zara. Ilea gehiegi luzatu zaizu. Baita bibotea ere". Itogarria zen, halakoen zerren-

## Jaso eta itzultzeaz



"Poztu egiten nau, sukaldera sartu eta aurreko egunetan, pure eta marmeladatan desegin genuen kalabazaren haziak lehortzen ikusteak".

### ALAZNE ARRUTI

**"Zenbait liburutegitan, liburuez gain, haziak ere partekatzen dituzte. Mailegu moduan eskainiz, nahi eta behar dituen orori"**

da amaiezin bati aurre egitea erabaki nion arte.

Aurre egin diot, baina, zehatzagoa litzateke halakoei erantzuten hasi nintzela esatea. Batez ere gurasoen aldetik jasotakoak zirenean. Azaldu nien, ez nuela onurarik jasotzen halakoetatik, baizik eta kontrara, ito larria eragiten zidatela. Eta elkarrengandik asko ikasi dugula esango nuke geroztik. Baina lehen fase hau, 5 kaxkar batez gainditu ostean, bizitzak eta egoerek etengabe konparatzen jarraitu nautela esango nuke. Eta agian, honetik konplizeagoa bilakatu

naiz. Ez dakit esaten ordea, pizti madarikatu hau osasuntsuki elikatu ote dudan.

Izan ere, askotan azertzen dut duela urte batetik hona emandako ibilbidea. Iragandako zenbait pasarte azertu eta aldatu nahi nukeen horri erantzun bat emateko bideren bat topatu nahian akaso. Eta pentsatu nahi dut, azterketa honetan, moduren batean edo bestean konparatzeko ekintza horri beste zentzu bat eman diodala. Adiskidetu egin naitzela berarekin. Etxekotuaz eta neurri batean otzanduaz.

Eta atzera begiratu gero identifika ditzaket lanpostu berri bat, kafe makina zaharkitu, helduaro bitxi eta inguratzen nauen harreman sare berezi eta osatuago bat. Ohiko lekueetatik kanpo eraikitako gaurkotasun emankor eta berde bat. Eta honen guztiaren gainean hazten eta hezten ari den hori

guztiori. Eta, ez dakit zehazki noiz hasi nintzen hazi berriak ereiten. Baina, badakit poztu egiten nauela, sukaldera sartu eta aurreko egunetan, pure eta marmeladatan desegin genuen kalabazaren haziak lehortzen ikusteak. Noizbait horretan hasi izana oroitzen didatelako.

Eta gaurkoan, ekimen berri bat ezagutu dut honi hertsiki lotua doana. Izan ere, zenbait liburutegitan, liburuez gain, haziak ere partekatzen dituzte. Mailegu moduan eskainiz, nahi eta behar dituen orori. Zertan datzan maileguak? Bada, trukean, hauek landatu eta hazten direnean euren fruituetatik jasotako hazi berriak itzultzeko konpromisoa eskatzen dute. Honela, belaunaldi berri bat sortuz eta atzetik datozei ere aukera bera emanaz. Eta noski, jakintza eta gomendioak ere pilatzen doaz gune hauetan. Hasi berrientzat zein, bidean zehar oztopoak topatu dituztenentzat lagungarri.

Eta esango nuke, eredu hau ere geure bizitzetara ekarri genezakeela. Ingurutik jaso, osteria inguru hori ontzeko erremedio izan daitekeela. Zaintza jaso ostean, eman eta zabaltzeari ere garrantzia eman behar geniokeela.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patria Jatorria

· bazkariak EGUNERO  
· afariak. ostegunetik larunbatara

© 943 362725 · © 688 690 361

## Ika-mika

## Hartu hitza eta erabaki!

**K**aixo lagun, Usurbilgo EH Bildutik gonbita luzatu nahi dizugu udaberrian burutuko dugun Kongresu Nazionalen parte hartzera. Jada bilkide mordoa batu gara proiektu politiko honen gainean hausnartu, ekarpenak egin eta iritziak elkartrukatzeko baina zure ahotsa ere beharrezkoa zaigu prozesu honetatik indartuta ateratzeko eta horregatik gonbidatzen zaitugu bilkide egitera.

Hamar urte beteko dira las-ter Bilboko Arenaleko emozio

uholdea proiektu politiko bihurtzen hasi ginenetik. Ibilbide zail bezain eder honetan, gure gorabehera guztiekin, hainbat lorpen garrantzitsu erdietsi ditugu Euskal Herriarentzat. Baina oraindik asko dago egiteko gure helburu politikoak gauzatzeko.

Herri honek hitza eta erabakia eduki ahal izateko, berdintasunean oinarritutako euskal jendartea eraikitzeke, euskal herritarrak zaindu eta babesteko, euskaraz bizitzeko aukera duen herria izateko, bakea eta

elkarbizitza demokratikoa eraikitzeke, ingurumena zaindu eta errespetatuko duen herria izateko... finean, amesten dugun Euskal Errepublikarantzko bidea guztion artean egin beharra daukagu.

Hala, beste jauzi bat emateko unea iritsi zaio ezkerreko subiranisten etxeari eta hori da, hain zuzen, EH Bilduren Kongresuaren helburua. Zeregin horretan zu zara protagonista, zuk lagunduko duzu gure herriak behar duen tresna politiko eraginkor eta sendoa

egiten.

Orain inoiz baino gehiago da funtsezkoa zu ere bidelagun izatea, bilkide bilkidera, Usurbil eta Euskal Herria eraldatzeko. Egin zaitetz bilkide! Har ezazu hitza eta erabakia Kongresuan!

Herritik jaio eta herria garelako,

**Ana Eizagirre, Mikel Iartza, Alazne Arruti, Fermin Munariz, Maialen Gonzalez, Xabier Arregi.**

## Ika-mika

## Euskadiko Angulero Elkarte sortu da

**E**uskadiko arro guztietako anguleroak biltzen ditu Euskadiko Angulero Elkarte sortu berriak.

Angularen 2020/2021eko debekualdia edo beda ez irekitzearen ondorioz beste makilakada bat jasan ondoren, euskal ibaien arroetan zeuden anguleroen taldeek aurrerapauso bat eman eta indarrak elkarte berean batzea erabaki dute. Honela, angularen kudeaketa defendatu eta bertan parte hartu ahal izateko.

Angulero taldeen artean zenbait elkarrizketa izan ondoren, eta guztien artean dagoen interes amankomuna ikusita, anguleroek elkarte sortzea

adostu dute. 2021eko urtarrilaren 17an, Butroeko anguleroen elkartearen instalazioetan, zuzendaritza-batzordea eratzeko eta estatutuak onartzeko bilera egin da. Oria ibaiaren arroko Unai Eizaguirre izendatu da lehendakari, eta Ion Ugutz Rotaetxe lehendakariorde. Idazkari Iñaki Bedoya izendatu da eta diruzain Tomas Badallo.

Arro bakoitzak bi bozeramaile izango ditu bere ordezkari-tzarako, eta beste bi gehiago ontzi-arrantza ere egiten den arroetan, hau da, lehorreko bi eta itsasontziko beste bi.

Angularen arrantza ia euskal ibai guztietan egiten da, baina

batez ere Deba, Oria eta Zumaian Gipuzkoan, eta Butro, Lea-Artibai, Oka, Ibaizabal eta Peñaren arroetan Bizkaian. Horietan guztietan lehorretik egiten da arrantza, baina Zumaian, Orion eta Butroen itsasontziz ere egiten da.

Gaur egun, 695 lizentzia daude Euskadin; horietatik 151 Debako arroan arrantzatzen dira, 188 Oriako arroan, 35 Urolan, Artibain 13, Lean 25, Okan 3, Butroen 166 eta Ibaizabalen 114.

Anguleroek angularen kudeaketan ahotsa izan nahi dute, eta aingira berreskuratzeke egiten diren lanei buruzko informazioa eskuragarri izan

nahi dute (orain arte ukatu egin izan zaie); modu honetara, espezieari eta haren kudeaketari buruz eztabaidatu ahal izateko.

Elkarteak angularen arrantza-baimena duten guztiei dei egiten die, bai eta lizentzia hori izan gabe ere, Euskadin hain tradiziozkoa den arrantza hori babestu nahi dutenei ere.

Informazio gehiagorako, helbide elektroniko hau eskaintzen da: euskadikoanguleroelkatea@hotmail.com

**Unai Eizaguirre Mateos, Euskadiko Angulero Elkarte.**



**EROSKI city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**ERAMATEKO!!!**



·EGUNEKO MENUA  
·KARTA

**ARTZABAL** (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATEXEA



[www.artzabaljatetxea.com](http://www.artzabaljatetxea.com) 943 36 91 39



**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

# Emisio-partikulak etengabe neurtzeko eskatu dio Udalak Ucini

Udalak jarduera lizentzia eguneratu dio Ucini. Eta lizentzia berrituan, Eusko Jaurlaritzak baino neurri zorrotzagoak ezarri dizkio la dio Udalak. “Aurrerantzean hainbat parametro modu jarraituan neurtzeko eskatu zaio enpresari”. Orain arte, urtean zehar neurketa puntualak egiteko derrigortasuna baino ez zuen. “Guk dakigula, enpresa bati halakorik eskatu dion EAEko udal bakarretakoa gara”.

Ez da ohikoa udal-lizentzia batek Jaurlaritzak berak emandako baimen bateratua baino neurri zorrotzagoak ezartzea. “Udalak Ucinekin egin bezala”. Hala dio Udalak salaketak aurkeztu dituzten herritarrei zuzendutako gutun batean. Idatzi horretan gauza gehiago ere jasotzen dira. Udalerrietako airearen kalitatearen kontrolean udalak ez direla eskumenak dituzten erakunde bakarrak. “Are gehiago, ingurumen baimen bateratua duten jarduera moten kasuan, Eusko Jaurlaritzari dagokio baimen bateratua igortzea, eta udalek aukera dute, ondotik, jarduera lizentzia egokitzeko. Usurbilgo Udalak halaxe egin



“Aurrerantzean hainbat parametro modu jarraituan neurtzeko eskatu zaio enpresari”, hala dio Udalak herritarrei zuzendutako gutun batean.

## UDAL GOBERNUA

**“Guk dakigula, enpresa bati halakorik eskatu dion EAEko udal bakarretakoa gara”**

du, baina, esan bezala, prozedura hori ez da ohikoa tokiko administrazioan”.

### Aspalditik datorren kezka

Ucinen jarduna ika-mika iturri izan da azken urteotan. Berta-

tik isuritako keak eta usainak ezinegona sortu dute herritar askoren artean. Aspalditik datorren zioa, da hortaz.

### “Zigor espedientea indarrean dago”

Udalak bere aldetik, hirigintza arloko bi zigor espediente zabaldu dizkio. Bata 2019an eta azkena 2020ko urrian. “Labe zaharreko ke isurketak jasotzeko kanpaia handitzeko obra baimena eman zien Udalak, baina, artean, baimen horretan

zehaztutako baldintzak bete gabe jarraitzen du Ucinek, eta horixe izan da zigor espedienteak zabaltzeko arrazoia”.

Zigor espedientea zabaltzeaz gain, irtenbide bila dabil Udala. Teilatu zati baten itxieraren auziari behin betiko irtenbidea eman asmoz, ingeniari eta enpresa bat kontratatu du, gai honi lotutako aholkularitza eman diezaion Udalari. “Edonola ere, zigor espedientea indarrean dago, eta bere bidea egiten ari da”.

## Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarekin elkarlanean

Zubietako kaxkoan, Udaregi ikastolaren ondoan... Herrian aire kalitatea neurtzeko hainbat tresna daude. Udalak, bere kabuz, beste neurketa batzuk egiten ditu aldian-aldian, “enpresa batzuetako ke isuriek eta usainek herritarren osasunean eraginik izan ote dezaketen jakiteko”, diote udal iturriek. Honi lotuta dago Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarekin egindako

lanak. “Usaina sor dezaketen konposatu organiko bolatila ikertzeko kontratatu ginituen, usainen jatorria zer izan daitekeen aztertze eta herritarren osasunean eraginik izan dezaketen jakiteko. Hala, 2019ko maiatzean egin zuten aipatu azterketa. Esan bezala beraz, herrian tarteka atzematen dugun usaina ze konposatuk sortzen duten ikertzea izan zen azterketa

horren xedea, baita jatorri posibleak identifikatu ere”.

### Emaitzak laster emango dituzte aditzera

Orain, Udalak eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak lan-lerro berri bat abiarazi dute. Aire kalitatearen modelizazio lanak egiten ari dira eta emaitzak laster emango dituzte aditzera. “Herriko emisio foku guztiak aintzat

hartuta, modu bateratuan Usurbilgo aire kalitatean zein eragin duten ikustea ahalbidetuko du modelizazioak, baita herrian kutsadura gehien non jasaten den jakitea ere”. Udalak aditzera eman duenez, azterketaren egileak Usurbila etorriko dira herritarrei emaitzak aurkeztu eta izan ditzaketen zalantzak eta ekarpenak argitzera.

# “Emisioen kontrolerako zortzi ikuskatzaile baino ez daude EAE osoan”

Udalak aditzera eman duenez, 2020ko azaroaren 9an batu ziren udal ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko arduradunak. 2020ko otsailean ziren egitekoak bilera hori, baina “Zaldibar, Covid-a, konfinamendua, hauteskundeak eta gobernu berriaren osaketa tarteko, hamar hilabetez atzeratu zen, eta azarora arte ez digute hitzordurik eman”.

Landutako gaien artean izan zen Ucinena. Herritarrek uda-lean aurkeztutako salaketa guztien berri eman zitzaion Eusko Jaurlaritzari, eta bilera hartan Udalak zein herritarrek gaiarekiko dituzten kezkek jarri zituzten mahai gainean.



Ucinen emisioen harira, herritarrek udaletxean aurkeztutako salaketa guztien berri eman dio Udalak Eusko Jaurlaritzari.

## UDAL GOBERNUA

**“Denon borondatea ezinbestekoa da, eta borondate horiek jostea da gure zeregina”**

Bideoak eta argazkiak erakutsi eta herritarrek azken hila-

beteetan igorritako salaketen berri ematearekin batera. “Gai honetan duten erantzukizuna onartu ziguten”, diote udal iturriek, “baita emisioen kontrolerako duten bitarteko-gabezia azaleratu ere. EAE osorako zortzi ikuskatzaile baino ez dituzte. Norberak atera ditzala

kontuak”.

## “Kolaborazioa eta elkarlana ezinbestekoak dira”

Aldaketak ahalik eta azkarren eman daitezten, Udala batzuekin zein besteekin dabil lanean, “kolaborazioa eta elkarlana ezinbestekoak direlako”. Ucinen aurkako salaketak aurkeztu dituzten herritarrei zera adierazi die Udalak: “Emisioak edota kutsadura murrizteko, ezinbestekoa da administrazioaren, enpresen eta herritarren arteko kolaborazioa, kooperazioa. Lan hauek ezin ditugu presio edo tentsioek eraginda bultzatu. Denon borondatea ezinbestekoa da, eta borondate horiek jostea da gure zeregina. Horretan dihardugu”.

## EH Bildu: “EAJ eta PSOEko arduradunei bost axola zaie zer erretzen den Zubietan”

Gipuzkoako Hondakinen Kontsoltzioak industria arloko hondakinak errausteko asmoa du. Eta hori posible izan dadin, Eusko Jaurlaritzari ingurumen baimen bateratua moldatzeko eskatu dio. Baita oneritzia jaso ere. Honen aurrean, EH Bildu Usurbilek agiri bat plazaratu du:

“Oraingoan ere ezkutuan aritu dira. Hedabide batek argitara eman ostean, Arantxa Tapiak onartu egin behar izan du industriatik eratorritako hondakinak ERE Zubietako erraustegira ekarriko dituztela. Beren ohiko jokamoldea ikusita, egia esan, ez da ezustekoa izan. Baina horrek ez du kentzen berriak lehendik dagoen kezka eta haserrea areagotu ez duenik.

Zaldibarreko tragediatik urtebetera, aurkitu dute irtenbidea.

Ez, ez dute Zaldibar II egingo Zubietan, errauste-plantari “esker” hondakin gehienak desgerraraziko dituztelako. Desgerrarazi? Bistatik kendu agian bai, baina arnastuko dugun aireak zer ez ote du jasoko... Eta errausketa prozesuan geratzen diren errefusekin zer egingo dute?

Zubietako erraustegira gipuzkoarron etxe-hondakinak soilik bideratuko zirela ziurtatu zuten behin eta berriro. Baina eraikitako makro-egitura -makrozorpetzea ekarri diguna-, errentabilizatu behar dute. Eta hori hasieratik zekiten. Gipuzkoako Aldundiaren jukutriaren haritik dator, “funtsezko aldaketarik” ez duela-eta, orain Jaurlaritzak GHKri egokitu dion Ingurumen Baimen Bateratua. Normal, guztiak soka berekoak dira: in-

teres ekonomiko zehatz batzuk herritarren osasuna eta naturaren errespetua baino lehenago jartzen dituztenekoak.

Argi dago, lehenez gain, egun boterean dauden EAJ eta PSOEko arduradunei bost axola zaiela zer erretzen den Zubietan eta zer diogun usurbildarrok, inguruetakoko herritarrek eta, oro har, gipuzkoarrok. Beraiek, trikimailu legal guztiak erabiliz, arautegiak beren konbenientziara moldatuz, mafia instituzionala bezala funtzionatzen dute ase ezinak diren enpresa jakin batzuen mesederako.

Zubietako erraustegiko tximiniek botatzen duten kea beraien hitzak baino gardena goa da. Gezurretan, ezkutuan, erraustegiaren izena bera ere kamuflatu nahian dabilta, betiko lez.

Horregatik, jada bertan zer erretzen den, zer erreko den, zenbat, zer motako hondakinak, nondik ekarritakoak, zer eragina duen airean, giza-ekologian, naturan...; zer balorazioa ateratzen den errealki, zer egiten den erre-fusekin... Hori dena jakitea exijitzen dugu.

Hori guztia kontrolatzeko, gainera, batzorde independentea osatzea eskatzen dugu, adituez, herri-mugimenduko ordezkariak eta lekuko hautetsiez osatua. Ez, ez gara fido Jaurlaritzak egiten (omen) dituen kontrolak, are eta gutxiago, funtzionatzen hasi bezain pronto izan diren istripu, suteak ezkutatu direnean eta irregulartasunak eta informazio-eza nagusi direnean. Zaldibarreko hondakindegia, lekuko”.

# Usurbilgo erreten taldea: “Sutea handia izan da”

Pasa den larunbatean, eguerdi partean hasi zen sutea Beran; Nafarroaren, Lapurdiren eta Gipuzkoaren arteko mugan. Haizea zakar zebilen goizean goizetik, eta sua zein kea berehala hedatu ziren. Usurbilgo erreten taldeak ere itzaltze-lanetara batu behar izan zuten.

Larunbat gauean egoera kontrolatu ezinik zebiltzala jakinarazi zuten Nafarroako, Gipuzkoako eta Lapurdiko arduradunek, baina egoerak nabarmen egin zuen hobera igande goizean. Larrialdietarako Mahaiak astelehen honetan baieztatu zuen sutea egonkortuta zegoela. Kalteak handiak izan dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, nahita piztutakoa dela ematen du. 2.000 hektarea baino gehiago erre dira. Sua itzaltzeko ahaleginean Usurbilgo erreten taldeak hartu du parte.

## Gau osoa suari aurre egiten

Sua piztu zen egunean bertan, Usurbilgo erreten taldea hara abiatu zen. Igandean, eguerdi partean bueltatu ziren, gau



Iñigo Huegun, Yon Portu, Mikel Artola, Jokin Potularrume eta Arkaitz Lizeagak Nafarroan piztu zen sutea itzaltzen jardun zuten. Argazkia: Usurbilgo erreten taldea.

## IÑIGO HUEGUN, USURBILGO ERRETEK TALDEA

**“Sutea Lesakatik  
Aiako Harrietako  
parke naturalean barrena  
sartu zen Gipuzkoara”**

osoan suteari aurre egiten jardun eta gero. “Bordatxo tabernan oso nekatuta topatu ditugu, jan gabe”, azaldu zigun herritar

batek emalez. “Sutea ikaragarria izan dela esan digute. Usurbildar talde honek boluntario lana egiten du, kristoren lana”. Euren lana nabarmentzeko eskaera ere egiten zigun.

## Iñigo Huegun: “2.000 hektarea baino gehiago erre dira”

Usurbilgo erreten taldeko ki-deetako bat Iñigo Huegun da. “Sutea Lesakatik Aiako Harrietako parke naturalean barrena sartu zen Gipuzkoara”, azaldu digunez. Hantxe pasa zuten

asteburua. “Sutea handia izan da. 2.000 hektareatik gora, pentsa. Andatza osoak 800 hektarea baditu, egin kontu zenbat mendi erre den”.

## Usurbildik, bost lagun

Usurbilgo erreten taldea zazpi lagunek osatzen dute baina “bost bakarrik joaterik izan genuen”, azaldu digu Iñigo Huegunek. Berarekin batera, Yon Portu, Mikel Artola, Jokin Potularrume eta Arkaitz Lizeaga aritu ziren suari aurre egiten.



Usurbilgo erreten taldekoak igande eguerdian bueltatu ziren etxera. Gau osoan jardun zuten suaren aurka borrokan. Argazki hauek eurek utzi dizkigute.



# Ontzi arinak eta papera biltzeko poltsak eskatzeko epea zabalik da

**M**artxoaren 1etik aurrera, ontzi arinak eta papera biltzeko poltsak banatuko ditu Udalak. Covid-19ak dena zaildu duenez, poltsa hauen banaketa ezohikoa izango da. Aldez aurretik eskatu behar dira. Nola? Atez Ateko bulegora deituz, whatsapp mezu bidez edo e-posta bat idatziz.

Poltsak doan banatuko dira baina interesa duenak eskatu egin beharko ditu aurretik.

## Telefonoz, whatsapp bidez edo email bat idatziz

- 900 776 776 zenbakira deituz.
- 606 501 024 zenbakira whatsapp mezu bat bidaliz.
- atezate@usurbil.eus helbidera idatzita.



34 litroko edukiera dute (ohiko zabor poltsak 30 litrokoak izaten dira) eta berrerabilgarriak dira: etxean garbi daitezke eskuz zein garbigailuan.

## BAT URDINA, BESTEA HORIA

**Poltsak doan banatuko dira baina interesa duenak Atez Ateko bulegoan eskatu beharko ditu**

## Martxoaren 1ean hasiko da banaketa

Martxoaren 1ean hasiko dira banaketa egiten. “Nork bere zintzilikailuan aurkituko ditu poltsak, bere identifikazio txartel eta guzti”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

Astean behin egingo dute banaketa, astelehenean, aurreko aste osoan jasotako eskarrei erantzunez.

## Etxebizitza bakoitzeko poltsa bana

Etxebizitza bakoitzari ontzi arinak eta papera zein kartoia biltzeko poltsa bana emango zaio. Ez gehiago.

Poltsak bi helduleku ditu: bat luzea eta bestea motza. Lehenengo, helduleku motza sartu behar da zintzilikailuan, eta, ondoren, luzea. “Hala, poltsa zuzen eta ondo lotuta gelditzen da, bilketarako egoki eta bizilagunen espazioa errespetatuz”. Usurbil 0.0-ren irudiak eta identifikazio txartelak kanpoko aldean gelditu behar dute.



Papera eta ontzi arinak atez ate biltzeko poltsak: eska itzazu udaletxean!

900 776 776 atezate@usurbil.eus  606 501 024



Usurbilgo Udala

S	T	I		A	L
	O				S
L			T		I
	I	O		L	
I	T	A			
	A			I	T

## Otsailako Sudokua

Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

## Jesus, Maria eta Jose

NESKA-MUTILAAA...!



## Handitik txikiara



Ordena itzazu freskagarri hauek neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 6.

## Margotu



## engainaria

Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.



# Beti JAN eta beti gOSE

Erreparatu ongi irudi hauei. Hau da kuxidada! bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa bota, arrautza bat puskatu...), eta jan ere egin dute. Konturatzan al zara zer jan duten? Begiratu ongi eta asmatuko duzu.


MAHAIAN DAGOEN EZER EZ UKIT !

GONBIDATUAK DITUGU ETA






## DUTXARA!

Osatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.




## ZU bai Hamalau!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2020 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2020ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

# Ez gaitzatela engainatu... Betiko aurpegia dute!

**Buruntzaldeko  
Ezker Abertzalea**

A tzo telebistan, gaur irratian eta bihar markesinan. Etengabe, goiz eta arrats komunikabide eta sare sozialetan: Ertzaintzaren 700 plaza berri, duintasuna alde batera utzi eta herria saldu nahi duenarentzat. Garai berriez eta bizikidetzaz ari gatzazkigu, baina PNVren apustua garbia da; guztiz gairadimentsionatuta dagoen Ertzaintzaren instituzioa handitu eta indartzea. Instituzio honekiko jasaten ari garen zuriketa kanpaina eta propaganda ikaragarria da, euren irudia eta lana normalizatzeko saiakera garbia dago, normala izatetik oso urrun dagoen arren. Ezin dugu normalizatu Ertzaintza izatea, zure bizilagunak eta herritarrak jipoitzea, jazar-tzea zein torturatzea normalizatu ezin diren era berean.

Pandemia, arazo bat baino, aukera bat izaten ari da PNVrentzat eta haren Ertzaintzarentzat. Egungo testuinguruan beharrezkoak diren segurtasun neurrien aitzakipean, kontrol maila izugarri handitzeko eta gehiegikerietarako leiho paregabea ireki zaie. Probatzen ari dira, ea norarte estutu gaitzaketen, ea norarte eusten dugun, eta ez dezagun pentsa pandemiari aurre egiteko neurriak direnik, ez, pandemiak euren



“Instituzio honekiko jasaten ari garen zuriketa kanpaina eta propaganda ikaragarria da”. Irudia: irekia.euskadi.eus

## BURUNTZALDEKO EZKER ABERTZALEA

**“Ez gaitzatela engainatu,  
ez da beste  
lan bat gehiago.  
Ozen esan nahi dugu  
ez garelak geldirik  
geratuko, orain, inoiz  
baino gehiago, indarrak  
batu eta Ertzaintzaren  
gehiegikeriei atea itxi  
eta erantzuteko unea dela”**

boteretzea ahalbidetu badu ere, orain onartzen ditugun jarrera oldarkorrek geratzeko helburuz etorri dira, egungo kontestutik haratago doaz.

Egoera honetan, Ezker Abertzaleak hasieratik azaleratu du herritarron osasuna krisiaren erdigunean jartzeko beharra. Koherentziaz eta zuhurtziaz jokatu du bere jardun politikoa aurrera eramatean, eta PNV-k zein komunikabi-

deek ederki asko dakite hori, horregatik erabili nahi izan dute poliziaren jokabidea lehia politikoaren arma gisa; haien kudeaketa lotsagarria alboratu asmoz, Ezker Abertzalea interpelatu nahi izan dute. Hori gutxi balitz, Ertzaintzak biolentziaren hegemonia duela erakutsi nahi izan du, herritarren jokabideak kriminalizatu eta eskubide ororen gainetik daudela garbi utziz. Horren adibide dira azken asteotan sare sozial zein hedabideetan ikusitako hainbat irudi; haien lanpostuen galeratik protestan ari ziren ITPko langileen elkarretaratzean sindikalistari sudurra hautsi ziotenekoa, edota Donostiako Alde Zaharrean ikusitako aktuzio zentzugabeak.

Lehen “entrar con todo lo que tenemos” esaten zuten era berean, orain “vamos a tirar a dar” diote Donostiako Alde Zaharrean gazte bati matrailezu-

rra hautsi aurretik. Esaldi horien ondorioak jakinak dira: Iñigo Cabacas, Rosa Zarra, Anne, Nahuel Gomez, Kontxi Sanchiz edota Remi Aiestaran. PNVk ez badu Ertzaintza zehatzen horrelako kasuetan, Ertzaintzaren gehiegikeriei onespena ematen ariko zaie.

Indar polizialen irudia zuritzeko ahaleginetan dabil-tza, pandemiari aurre egiteko salbatzaileak bailiran, baina boterea eman zaien unean bertan erakutsi dute betiko instituzioa izaten jarraitzen dutela, eta euren partetik jipoiak, atxiloketak, ala abusuak besterik ezin ditugula espero. Hala erakusten dute, bederen, azken gertakariekin.

Garai berri baten kondaira eta ohiko lanbide bat saldu nahi badigute ere, argi dago betikoa izaten jarraitzen dutela; elite ekonomiko eta politiko konkretu baten interesak babesteko euren bizilagunak eta senideak jipoitu eta hiltzeko prest dauden BERREROAK.

EZ GAITZATELA ENGAINATU, ez da beste lan bat gehiago. Ozen esan nahi dugu ez garelak geldirik geratuko, orain, inoiz baino gehiago, indarrak batu eta Ertzaintzaren gehiegikeriei atea itxi eta erantzuteko unea dela.

**Buruntzaldeko  
Ezker Abertzalea  
Ernai, Sortu, LAB**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

*Usurbil Autoak*  
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

# Anbulantzietako langileak baztertuta sentitzen dira

COVID-19aren aurkako txertaketa hasi zenetik hona baztertuta sentitu direla salatu dute ambulanzietako teknikariek. ELA, LAB, UGT, CCOO, USO eta CNT sindikatuek elkarretaratzea egin zuten aurreko astean Donostiako Ospitalearen aurrean. Euskadiko osasun garraioaz arduratzen dira eta azpikontratutako langileak dira ia denak. Euren txertaketa eskatzen aritu dira azken asteotan. Erantzun argirik jaso ez dutenez, martxoaren 5erako greba deitu dute.

Osakidetzaren menpe dauden ambulanzietako langileak %1 baino ez dira eta txertoa jasotzeko aukera eskaini zaie. Gainerako %99a azpikontratua da, eta lerro hauek idazterakoan, ez zuten balizko txertaketa baterako egutegirik eskuan. Baztertuta sentitzen dira. Gipuzkoan bakarrik, 500 dira egoera honetan diren ambulanzietako langileak. Egunero birusarekin kontaktuan daude eta bigarren mailakoak balira bezala tratatzen dituztela salatu dute.



Jon Orbeago, Jon Martin eta Ruben Fernandezek esan digutenez, "Covid-19ko altak ere garraiatzen ditugu".

## ANBULANTZIENTAKO LANGILEAK

**Egunero birusarekin kontaktuan daude eta bigarren mailakoak balira bezala tratatzen dituztela salatu dute**

Pandemia hasi zenetik hona birusaren kontrako lehia aritu

dira. Osakidetzako langileak eta azpikontratutako langileak. Denak. Beraz, zentzugabea dirudi txertaketa-planan lan-kontratuaren araberakoa izatea.

## Donostiako elkarretaratzean 150 langile batu ziren

Bizi-euskarri aurreratua eta oinarrizkoa, zein programatutako osasun-garraioak buru-

tzen dituzten langile hauek mobilizazioetan dira egunotan. Otsailaren 17an Donostian egin zen elkarretaratzean ambulanzietako 150 langile batu ziren. Otsailaren 23an Gasteizera joan ziren protesta egitera. "Erantzunik ez badago, greba deituko dugu", ohartarazi zuten sindikatueta ordezkariek. Martxoaren 5erako egin dute greba deialdia.

## "Ez gaituzte lehen lerrokotzat hartzen. Eta izan, bagara"

**NOAUA! Mobilizazioak egin dituzte azken egunotan. Zer dela eta?**

**Jon Martin:** Duela bi hilabete Osakidetzako langileak hasi ziren txertatzen. Lehen lerroan dabilzanak. Ikusita denbora aurrera doala eta ez direla gurekin kontaktuan jarri ere egin, EAeko sindikatuak elkartu eta hiru mobilizazio egitea adostu genuen. Otsailaren 17an Donostian izan ginen, 18an Bilbon eta 23an Gasteizen izango gara. Txertaketa planik ez bazaigu aurkezten, grebara goaz.

**Jon Orbeago:** Enpresari langile guztien zerrenda eskatu zitzaion baina momentuz ez dute ezer egin.

### Zuen lana zertan datza?

**Jon Orbeago:** Guk onkologikoko trasladoak egiten ditugu, eta errehabilitazioetakoak edota dialisietakoak...

**Ruben Fernandez:** Gipuzkoa osoan ibiltzen gara eta Covid-19ko altak ere garraiatzen ditugu.

**Birusarekin kutsatuta daudenean kontaktu zuzena duzue**

**hortaz.**

**Ruben Fernandez:** Noski baietz. Hartu beharreko neurri guztiak hartzen ditugu baina askotan pazienteen etxeetaraino sartu behar izaten dugu.

**Jon Martin:** Covid-en positiboak diren gaixoak ere garraiatzen dira. EPIa jantzita bada ere, zerbitzu hori egiten da.

**Pandemiaren lehen lerroan zaudetela, alegia.**

**Jon Orbeago:** Hori da. Baina ez gaituzte lehen lerrokotzat hartzen. Eta izan, bagara.

**Jon Martin:** Gizarteari esan behar zaio Eusko Jaurlaritzak ia osasun garraio osoa pribatizatuta daukala.

**Ertzainak txertatzen hasi dira. Hori ikusita, zuei zer pasatzen zaizue burutik?**

**Jon Martin:** Guk ez dugu beste batzuei txerto eskubidea kentzerik nahi, guri emateko gero.

Gu borrokatzen ari gara da osasun arloko teknikarien %99a lehen lerroan ari gara. Beraz, txertaketan gu ere kontuan har gaitzate.

# Banda zabala landa eremu osora hedatzeko ahaleaginean

**H**errigunean jarria dago banda zabalaz hornitzeko azpiegitura, baina landa eremuko hainbat gunetan ez da zerbitzu hori eskaintzen oraindik. Azpiegitura honen falta duten 75 etxebizitza identifikatu ditu Udalak. Mapa bat kaleratu du udaletxeko ingurumen eta nekazaritza sailak, identifikatutako etxebizitzak erakutsiz. “Landa eremuan bizi den herritarren batek ikusiko balu bere etxebizitza falta dela, jar dadila gurekin harremanetan”, eskatu dute nekazaritza saileko ordezkariak.

Baserriekin harremanetan jarrita, azpiegitura hori falta duten 75 etxebizitza identifikatu ditu Udalak, baina ezin izan du guztiekin hitz egin: ingurumen eta nekazaritza sailarekin harremanetan jartzeko eskatu diete, Udalak eginiko mapan ageri ez diren landa eremuko herritarrei.

## Prozedura martxan

Era berean, Udalak Foru Aldundiari jakinaraziko dio zeintzuk diren zerbitzu hau ez duten eremuak, arazoa konpontzeko prozedura abian jar dezan.



“Landa eremuan bizi den herritarren batek ikusiko balu bere etxebizitza falta dela, jar dadila gurekin harremanetan”.

## BANDA ZABALA

**Zerbitzuan interesa duten herritarrei otsailaren 26a baino lehen ingurumen eta nekazaritza sailarekin harremanetan jartzeko eskatu zaie**

## Udal nekazaritza sailera jo

Zerbitzuan interesa duten he-

rritarrei otsailaren 26a baino lehen ingurumen eta nekazaritza sailarekin harremanetan jartzeko eskatu zaie. Bi modutara egin daiteke eskaera, emailaz edo telefonoz deituta: ■ [ingurumena@usurbil.eus](mailto:ingurumena@usurbil.eus) e-posta helbidera email bat idatziz.

■ Udaletxera telefonoz deituz: 943 37 19 51.

## Teknologia berriei buruzko ikastaroa, helduei zuzendua

Adinekoek bideokonferentziak eta whatsapp aplikazioa erabiltzen jakiteko ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udalak herritar helduenentzat. 4 ordukoa, bi aste ezberdinetan bideratuko dena.

## Egunak eta tokia, interesatuen arabera

Presentzialak izango dira saioak, eta horretarako beharrezko prebentzio neurriak hartuko dira. Baina nahita ez dituzte ez ikastaro egunak ezta tokia ere zehaztu nahi izan. Xehetasunok lotu aurretik izen ematea bideratu nahi dute eta “interesaren eta jendearen bizilekuaren arabera ikastaroak leku ezberdinetan kokatuko ditugu”, Maria Salsamendi gizarte zerbitzuetako udal teknikariak aditzera eman zuenez.

## Izen-ematea, Gizarte Zerbitzuetan

Izena emateko Gizarte Zerbitzuetara deitu besterik ez dute, 943 377 110 telefono zenbakira. Informazio gehiago jaso daiteke bertan.

Izena ematen dutenei, eskuko telefonoa ikastarora eramatea eskatuko zaie.

## EHEk ‘Ikusmira’ agiria aurkeztu du

Euskal Herrian Euskarazek prentsaurrekoa eskaini zuen larunbat goizean Potxoenean. Etorkizuna marrazten hasteko lehen urratsa izan zen prentsaurrekoa, eta konpromiso zorrotza erakutsi zuten kideek Euskal Herri euskaldun eta independente bat eraikitzeko bidean borrokan aritzeko.

Datozen hilabeteetan zehaztuko dituzte euskararen alde emango dituzten urratsak.



Etorkizuneko egitasmoak aurkezteko agerraldia egin zuten pasa den larunbatean, Mikel Laboa plazan.

# PSE-EE: “Garrantzitsua da Udalak haur-minbiziaren gaineko kontzientzia sortzea”

Patxi Suarez zinegotzi sozialista kezkatuta dago, “orain baliabide guztiak Covid-19aren pandemiari aurre egitera bideratzen direlako. Haur-minbiziak ere baliabideak, azterlanak eta ikerketa behar ditu”, dio hedabideetara igorri duen idatzi batean. Honi lotutako mozio bat erregistratu du udaletxean, otsailaren amaierako plenoan aztertua izan dadin.



Udalak osasun publikoko eragileekin elkarlanean jarduteko konpromisoa har dezala eskatu du Patxi Suarez zinegotzi sozialistak.

Otsailaren 15ean, Haur Minbiziaren Nazioarteko Egunean, Patxi Suarez Usurbilgo zinegotzi sozialistak mozio bat erregistratu zuen udaletxean. Familia gipuzkoarrek bizi duten “osasun-drama” baten inguruan sentsibilizatzea eta hura ikusaraztea du helburu. Gauzak ondo, mozio hau otsaila amaierako ohiko plenoan hartuko dute hizpide.

Patxi Suarezen ustez, Covid-19aren pandemiak isilarazi egin du paziente onkologiko pediatrikoek diagnostikoen,

## HAUR-MINBIZIA

### Mozio bat erregistratu du udaletxean, otsailaren amaierako plenoan aztertua izan dadin

tratamenduen eta ebakuntza onkologikoen atzerapenagatik bizi duten osasun-drama. Ikerketa arloan osasun-krisi hau ondorio “larriak” izaten ari dela dio, minbiziaren inguruko oinarritzko ikerketa aldi bate-rako eten delako.

“Ez dakigu zenbateraino ari

den koronabirusak eragindako osasun-krisi hau pazienteen diagnostikoa eta tratamendua eta haren ondorioa baldintzatzen. Segimendu egokia egin behar da eta, zalantzarik gabe, gizartearen sentsibilizazioa funtsezkoa da”, esan du prentsa-ohar bidez. Hori dela eta, eskatzen du Usurbilgo Udalak konpromisoa har dezan osasun publikoko eragileekin elkarlanean jarduteko, bizi-estilo osasungarriak sustatzen dituzten prebentzio-estrategietan, eta estrategia horiek tokiko

erakunde-politikan sustatzeko, paziente onkologiko pediatriko horiek ikusarazteko.

Bozerramaile sozialistaren iritziz, “garrantzitsua da udalak gaixotasun horren gaineko kontzientzia sortzea”, eta horregatik Udalarari eskatzen dio Eusko Jaurlaritzak eta minbizi duten gaixo horiekin eta haien familiarekoekin lan egiten duten erakundeek eta elkarteek egiten dituzten sentsibilizazio- eta laguntza-programen garapenean lankidetzan jarduteko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatu die gaixotasunaren eraginpean dauden ume eta nerabe horien eta haien familien eskura tresna gehiago jartzea, “inpaktu emozionala, mentala eta fisikoa arintzeko”.

Urtero, 400.000 minbizi-kasu baino gehiago diagnostikatzen dira mundu osoan. “Espainian, 1.400 diagnostikatzen dira; Euskal Autonomia Erkidegoan, 100 eta 150 bitartean, eta, Gipuzkoan, 25 eta 30 bitartean”.

## Udaleku

### ibiltarirako sukaldari eta begirale bila

Pauso eta Salto! izeneko udaleku ibiltaria ekainaren 28tik uztailaren 4ra egingo da. Zumaian abiatu eta Lekeition amaituko da.

### Curriculumak e-postaz bidali behar dira

Begiraleak eta sukaldariak behar direnez, UEMAk lan deialdi bat luzatu du. Martxoaren 31 baino lehen bidali behar dira curriculumak hezkuntza@uema.eus helbidera.

## Plazan Bazan, 10/11 orrialdeetako soluzioak

**OTSAILEKO SUDOKUJA**

Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letra kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hitzi bakozkiz behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arrea bakoitzeko.

S	T	I	O	A	L
A	O	L	I	T	S
L	A	S	T	O	I
T	I	O	S	L	A
I	L	T	A	S	O
O	S	A	L	I	T

**Handitx txikira**

Orderatu itzazu freskagarri hauak neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikieneri 6.

**Jesus, Maria eta Jose**

NESKA-MUTLARRAK.

**Beti jan eta beti gose**

Erreparatu angil inndi hauei. Hasi da kuxidada! bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa botu, arrautza beti putikatu...), eta jan ere egin dute. Konturatu al zara zer jan duten? Begiratu angil eta asmatuko duzu.

**DutXara!**

Ostatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, horieko domino zati honek zentzua izan dezan.

**Margotu**

**ENGAINARIA**

Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartute. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.

**Zu bai Hamalau!**

Aurki itzazu bi inulien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramun- to kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m<sup>2</sup> terraza, 8m<sup>2</sup> trastelekua, 24m<sup>2</sup> garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

**Alokairuan**

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina koxtea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagarria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko

ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informekin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Astehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko

emakume bat eskaintzen da. 631157290.

**BESTELAKOAK**

Salgai termomix mod TM 31 oso berria 618094968

Laboraleko kartila bat galdu dut Antxetatik Atxegalderako bidean. Topatzen baduzu asko eskertuko nizuke Udaltzaingora eramatea edo ondorengo telefonora deitzea: 629475343

Usurbil inguruan baratza lantzeko lur sail baten bila nabil. 606601235

Egur eta ikatz sukalde ekonomika salgai. Deville markakoa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandejarekin. 696763868/699723314

Mendiko bizikleta bat salgai 646715903 (Maidier)

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.



### Zorionak etxeko guztien partez, Kattalin!

Jaso itzazu 5 muxu potolo!



### Zorionak Mikeltxo!

Jarraitu egunerokotasuna berezi egiten! Etxekoen partez.



### Zorionak Urko!!

Etxeko pottokoak 5 urte beteko ditu. Segi beti bezain umoretsu eta alai. Muxu asko denon partez!



### Zorionak Laia!!

Martxoaren 1ean 6 urte beteko dituzu. Egun zoragarria pasa maizia!!

**Heriotzak**

**Arantxa Aranzadi Manterola**  
Otsailaren 17an hil zen, 89 urterekin.

**Heriotzak**

**Magdalena Gaitero Figueras**  
Otsailaren 17an hil zen, 84 urterekin.

**Heriotzak**

**Jacinta Aguirre Aburuza**  
Otsailaren 17an hil zen, 94 urterekin.

**Heriotzak**

**Maria Begoña Lasarte Jonsansoro**  
Otsailaren 17an hil zen, 60 urterekin.

**Heriotzak**

**Joxe Mari Retegi Zubillaga**  
Otsailaren 20an hil zen, 55 urterekin.



## Goardiako farmaziak

**Osteguna 25** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 26** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 27** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 28** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Astehena 01** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Astearte 02** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteazkena 03** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

**Osteguna 04** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 05** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

**Larunbata 06** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 07** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

# Agenda otsaila

## 26 ostirala

- "Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa" ikastaroa. 15:30ean Potxoenean. Izen ematea usurbilkultura.eus atarian.
- Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 27 larunbata

- Ez dago ekitaldirik iragarrita. Emanaldiak edo bestelakoak iragartzeko, idatzi hona: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

## 28 igandea

- Ez dago ekitaldirik iragarrita. Emanaldiak edo bestelakoak iragartzeko, idatzi hona: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

## Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari buruzko saioa

Usurbil sagardoaren bihotza, sagardoaren kultura zikloaren baitan, Alkartasuna Usurbilgo Base-rritarren Kooperatibak "sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa" saioa antolatatu du.

### Aurrez eman behar da izena

Otsailaren 26an ostirala, 15:30ean Potxoenean. Aitor Etxeandiak bideratuko duen hitzordurako izena aurrez eman beharko da [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) atarian, [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) helbidean edo 943 361 114 telefono zenbakian.

### Inausketa praktikak egingo dira

"Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira: ekoizpenaren hobekuntza, arbolaren erregulazioa



Aitor Etxeandiak eskainiko du Potxoenean. Otsailaren 26an ostirala, 15:30ean hasita.

fruta adarrak sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu...". Alkartasunatik aditzera eman dutenez. "Ongarriketa desberdinen helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo sagastietan egingo dira".

## Elkarretaratzea

Euskal presoen eskubideen aldeko azken ostiraleko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Mobilizazio honetan parte hartu asmo dutenei, maskarak erabili eta bi metroko segurtasun tartea errespetatzea eskatzen die Sarek.

- Ordua: 20:00.
- Tokia: Mikel Laboa plaza.
- Deitzailea: Usurbilgo Sare.

## "Udako jaiekin zer?"

Iaz bezalatsu gaudenez, "iritsi da egoera aztertu, hausnartu eta elkarrekin, udako festekin zer egingo dugun erabakitze-ko unea". Helburu horrekin Usurbilgo Kultura Sailak bilera irekia deitu du, martxoaren 1ean, 18:30ean, Udarregiko Erdiko Aretoan. Bertaratzeko izena eman behar da [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

### Datozenak

#### Martxoaren 8ari lotutako lehen deialdiak

Martxoak 6, larunbata

- Emakumeen Etxearen parte-hartze prozesuko emaitzen aurkezpena eta eskertza ekitaldia. Eguerdiko 12:30ean Kalezarren.

Martxoaren 11 osteguna

- Irene Arraratsek euskarara ekarri du Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* liburua. Saiakera honetan oinarritzen da Nora Alberdik eta Iratxe Fresnedak osaturiko *Bigarren sexua(z): Collage* ikus-entzunezkoa. 19:00etatik aurrera eskainiko dute film hau Potxoenean. Solasalditxo bat egingo da ondoren.

#### Haurrentzako zinema:

#### "Alfonbra Magikoa"

Martxoak 7, igandea

- 17:00etan Sutegin.
- Sarrera 3 eurotan eskura daiteke [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) atarian. Kopuru mugatua izango da.
- Sinopsia: Mila eta bat Gauetako kontakizun honek herrixka bateko mutiko baten ibilerak dakarzkigu. Bere ahuntz leiala, alfonbra hegalaria bat eta hiri handiko kaleetan bizi den neskatala bat lagun dituela, munduan barrena abiatuko da eta hainbat etsai garaitu beharko ditu.

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA  
· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA



## noaua.eus goranzko joeran

Erabiltzaileen kopurua %22'84 igo da

<u>2019</u>	<u>2020</u>
37.331	45.859

Ikusitako orrialdeen kopurua %27'65 igo da

<u>2019</u>	<u>2020</u>
230.310	293.996

Bisitek gora egin dute nabarmen: %43'06

<u>2019</u>	<u>2020</u>
102.227	146.250



# noaua

noaua.eus, usurbildarren zerbitzura



# ATE IREKIAK

## Martxoak

# 10

HARTU  
HITZORDUA!

Erdi Maila: 17:00

Goi Maila: 18:00

☎ 943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

# LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Osasun neurri guztiekin  
zuen zerbitzura

-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, EREÑOTZU-HERNANI

Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867

# Herri Batzarra

PONENTZIEN AURKEZPENA

Usurbil  
otsailak 27, larunbata  
10:30 · Telematikoa

izena emateko:  
[labur.eus/kgpwt](http://labur.eus/kgpwt)

Hizlaria:  
Maddalen Iriarte

(EH Bilduren legebiltzarreko bozeramailea)



**ehbildu**  
USURBIL

batu zaitez,  
bilkide  
egin.



[ehbildu.eus](http://ehbildu.eus)